

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira 2025eko azaroaren 25etik 2026ko azaroaren 23ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolarientzako foru dirulaguntzetarako.

Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailak bere helburuen artean dauzka kirolaren sustapena eta Bizkaiko kirolarien babesa, lehen lerroan lehiatu daitezten.

Zentzu honetan, lan bikoitza egiten du: Lurralde Historikoan kalitatezko kirol jarduerak egin daitezten sustatzea batetik, eta estatu zein nazioarte mailan emaitzak lortzeko xedearekin lehiatzen diren kirolariak zuzenean laguntzea.

Bigarren esparru honetan kokatzen da deialdia hau. Nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako lehiaketetan sartzen laguntzeko, eta kirolariek elitara heltzeko aukera izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak partez finantzatuko

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a deportistas de Bizkaia que, entre el 25 de noviembre de 2025 y el 23 de noviembre de 2026, tomen parte en pruebas deportivas incluidas en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o de federaciones españolas.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte tiene entre sus objetivos el fomento del deporte y el apoyo a las y los deportistas de Bizkaia en competiciones de primer nivel.

En ese sentido, desarrolla una doble labor: la de fomentar la celebración de eventos de calidad en el Territorio Histórico, y la de apoyar directamente a las y los deportistas que compiten con miras a obtener resultados a nivel estatal e internacional.

Es en este segundo campo donde se sitúa la presente convocatoria. A fin de facilitar el acceso a competiciones incluidas en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o de federaciones españolas, y como paso necesario de las y los





baititu Bizkaiko kirolariak, 2025eko azaroaren 25etik 2026eko azaroaren 23ra egiten diren kirol proba ofizialetan, bakarka edo bikotean parte hartzeagatik dituzten gastuak. Gastu horiek izango dira izen-ematea, egonaldia, bidaiak eta mantenua.

2010. urtean edo lehenago jaioak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak. Salbuespenez onartuko dira 2010aren ondoren jaiotakoak, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolari edo Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagai legez aintzatetsi baditu. Onuradun izan daitezkeen adinak zehazten dira, beharagoko adinak eskola-kategoriei dagozkielako.

Proposatutako xedapen orokorraren gaiari dagokion eskumena Bizkaiko Foru Aldundiarena da, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikulua araberak, lurralde historikoei baitagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako arauak garatu eta betearazteko eskumena.

Halaber, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak, 2.3 artikuluan, adierazten du euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dutela, eta, besteak beste, printzipio hauek gidari izango dituela: lehiaketa-kirola antolatzea eta sustatzea eta lehiaketazko euskal kirola Estatuan eta nazioartean babestea.

Zehazki, eskudantzia hori Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari dagokio; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko

deportistas en su tránsito hacia la élite deportiva, se pretende financiar parcialmente los gastos de las y los deportistas de Bizkaia que tomen parte, en competición individual o por parejas, en pruebas deportivas oficiales que se celebren entre el 25 de noviembre de 2025 y el 23 de noviembre de 2026. Los citados gastos se refieren a la inscripción, estancia, desplazamiento y manutención.

Tienen acceso a las presentes subvenciones las y los deportistas que hayan nacido en el año 2010 o antes, aunque, excepcionalmente, se admitirán las personas nacidas con posterioridad al año 2010, siempre que estén reconocidas como deportista promesa o pre-promesa por la Diputación Foral de Bizkaia. Se delimitan las edades de los y las posibles beneficiarias, ya que las edades inferiores corresponden a categorías escolares.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del artículo 7.b.6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que establece que corresponde a los Territorios Históricos el desarrollo y la ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de fomento del deporte.

Además, el artículo 2.3 de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco señala que los poderes públicos vascos, en el ámbito de sus respectivas competencias, adoptarán una política dirigida a la efectividad del derecho a la actividad física y al deporte de acuerdo con, entre otros, los siguientes principios rectores: la ordenación y el fomento del deporte de competición y el apoyo al deporte vasco de competición en el ámbito estatal e internacional.

Concretamente, tal atribución corresponde al Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, al que de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral de la





erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuarekin bat etorriz, sail horri, besteak beste, eginkizun hauek dagozkio:

- kirola eta kirol espiritua sustatzea, praktikatzeko aukerak eskainiz, eta
- laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxekien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta orokorrean printzipio berak jorratzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektzionala jasotzen ditu, bai prestatzeko orduan bai aplikatzeko orduan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako

Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del mismo, le corresponden, entre otras competencias:

- fomentar el deporte y el espíritu deportivo, ofreciendo oportunidades para su práctica, y
- prestar apoyo a deportistas que presenten aptitudes relevantes para la práctica del deporte.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y perspectiva interseccional tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de





Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero Eraginaren Atariko Ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari Buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari

junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.
2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Informe de control económico.
5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento, el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su





dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, hau

aprobación en un solo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. *Foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea.*

Artículo único. *Aprobación de las bases reguladoras y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira 2025eko azaroaren 25etik 2026ko azaroaren 23ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen duten Bizkaiko kirolariei Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak emango dizkien foru dirulaguntzetarako.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se concedan por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, destinadas a deportistas de Bizkaia que, entre el 25 de noviembre de 2025 y el 23 de noviembre de 2026, tomen parte en pruebas deportivas incluidas en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o de federaciones españolas.

Azken xedapenak

Disposiciones finales

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, foru dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion foru dirulaguntzak ematea.

1. Se habilita a la Diputada Foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia, edo

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las





aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen denean.

Administraciones Públicas o cuando se agote o incremente la dotación presupuestaria.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte.
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA





OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA
2025EKO AZAROAREN 25ETIK 2026KO
AZAROAREN 23RA BITARTEAN
NAZIOARTEKO FEDERAZIOEN EDO
ESPAINIAKO FEDERAZIOEN EGUTEGI
OFIZIALETAN SARTUTAKO KIROL-
PROBETAN PARTE HARTZEN DUTEN
BIZKAIKO KIROLARIENTZAKO FORU
DIRULAGUNTZETARAKO.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA
PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES
FORALES DESTINADAS A DEPORTISTAS DE
BIZKAIA QUE, ENTRE EL 25 DE
NOVIEMBRE DE 2025 Y EL 23 DE
NOVIEMBRE DE 2026, TOMEN PARTE EN
PRUEBAS DEPORTIVAS INCLUIDAS EN
CALENDARIOS OFICIALES DE
FEDERACIONES INTERNACIONALES Y/O
DE FEDERACIONES ESPAÑOLAS.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Bizkaiko kirolariek dirulaguntza jasoko dute beren gain hartu behar izan dituzten inskripzio, egonaldi, joan-etorri eta mantenu gastuengatik, baldin eta 2025eko azaroaren 25etik 2026ko azaroaren 23ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzen badute, banakako nahiz binakako norgehiagoketan.

Diruz lagunduko dira, halaber, kirolariek bere gain hartutako entrenatzaile-lanak egiten dituen laguntzaile baten gastuak eta ordainsariak, proba egiteko unean indarreko lizentzia badu diruz lagundutako probari dagokion diziplinan entrenatzaile gisa jarduteko.

Mantenu- eta egonaldi-gastuen kasuan, lehiaketan parte hartu aurreko egunari, lehiaketan parte hartzen den egunei eta lehiaketan parte hartu eta hurrengo egunari dagozkien gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Serán objeto de subvención los gastos de inscripción, estancia, desplazamiento y manutención que hayan tenido que asumir los y las deportistas de Bizkaia que tomen parte, en competición individual o por parejas, en pruebas deportivas que se celebren entre el 25 de noviembre de 2025 y el 23 de noviembre de 2026, siempre que sea en pruebas deportivas incluidas en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o de federaciones españolas.

Serán objeto de subvención, asimismo, los gastos y emolumentos asumidos por los y las deportistas relativos a una persona acompañante que desempeñe el papel de entrenadora, siempre que en el momento de celebración de la prueba tenga licencia en vigor para ejercer como tal en la disciplina a la que pertenece la prueba objeto de subvención.

En el caso de gastos de manutención y estancia únicamente se subvencionarán aquellos correspondientes al día anterior a la participación en la competición, a los días en los que se participe la competición y al día siguiente a la participación en la competición.





Era berean, mantenu-gastuen kasuan, eguneko hiru mantenu baino ez dira kontuan hartuko.

2. Diruz lagunduko diren probak Euskadiko Kirol Federazioen urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean jasotako kirol modalitateen eta diziplinen katalogoa eguneratzeko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 10eko Aginduan halakotzat aitortutako kirol-diziplinei buruzkoak izan beharko dira. Era berean, dirulaguntza jaso ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak agindu horren ondoren aitortutako kirol-diziplinen probek, baldin eta proba egin aurretik aitortzen badira.

Hipikako diziplinen kasuan, baldintza hauek betetzen dituzten eskabideak soilik hartuko dira kontuan:

Jauzi-diziplinan: lehiaketa minimoa: 6ko lauhazka, eta gutxieneko altuera: 1,30 metro.

Raid diziplinan: lehiaketa minimoa: izar 1, eta gutxieneko distantzia 80 kilometro.

Lehiaketa osoko diziplinan: lehiaketa minimoa: 7ko lauhazka.

Hezte-diziplinan: lehiaketa minimoa: 4ko lauhazka, eta tarteko mailako proba.

Poni-diziplinan: lehiaketa minimoa: D kategoria, eta gutxieneko altuera 1,1 metro. Promesa edo promes aurreko aitorpena duten kirolariak bakarrik onartuko dira.

Foru dekretu honen ondorioetarako, nazioarteko kirol probatzat hartuko dira modalitateko nazioarteko federazioaren egutegi ofizialean halakotzat ageri direnak. Surf modalitatean, WSLk antolatutakoak ere nazioarteko kirol-probatzat hartuko dira.

Probak izan behar dira ume, kadete, gazte,

Asimismo, en el caso de gastos de manutención únicamente se tendrán en cuenta tres manutenciones por día.

2. Las pruebas objeto de subvención deberán referirse a disciplinas deportivas reconocidas como tales en la Orden de 10 de febrero de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, de actualización del catálogo de modalidades y disciplinas deportivas contenidas en el anexo al Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco. Asimismo, serán objeto de subvención las pruebas de disciplinas deportivas reconocidas por el Gobierno Vasco con posterioridad a dicha orden, siempre que el reconocimiento se produzca con anterioridad a la celebración de la prueba.

En el caso de las disciplinas de hípica, únicamente se tendrán en cuenta las solicitudes que cumplan con los siguientes requisitos:

Disciplina de salto: competición mínima galope 6 y altura mínima 1,30 metros.

Disciplina de raid: competición mínima 1 estrella y distancia mínima 80 kilómetros.

Disciplina de concurso completo: competición mínima galope 7.

Disciplina de doma: competición mínima galope 4 y prueba de nivel intermedio.

Disciplina de ponis: Competición mínima Poni D, y la altura mínima 1,1 metros. Únicamente se admitirán a deportistas con reconocimiento de promesa o pre-promesa.

A los efectos del presente decreto foral, tendrán consideración de pruebas deportivas internacionales las incluidas como tales en el calendario oficial de la federación internacional de la modalidad. En la modalidad de surf se considerarán también como pruebas deportivas internacionales las organizadas por la WSL.

Las pruebas deberán ser de categoría infantil,





junior, absolutu edo kategoria seniorrekoak.

3. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geldituko dira beteteren, masterren edo antzekoen probetara joateak sortutako gastuak, bai eta eskola kiroleko edo federatuak ez diren lehiaketetakoak eta Estatukoa baino eremu txikiagoko lehiaketetakoak ere.

4. Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko izen-ematea, egonaldia, bidaiak, mantenua edo beste edozein, kirolarien laguntzaileenak badira –salbu eta kasuan kasuko probetara joan den entrenatzailearenak, oinarri honen 1. puntuari ezarritako eran–. Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, halaber, dirulaguntzaren zioa den kirol probarekin loturik ez daudenak.

5. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

6. Foru dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatzeko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

7. Ez da inolaz ere diruz lagunduko edozein motatako diskriminazioa eragiten duen jarduerarik edo proiekturik, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera.

cadete, juvenil, junior, absoluta o senior.

3. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral los gastos generados por la asistencia a pruebas de veteranas y veteranos, másteres o similares, así como los que pertenezcan a competiciones de deporte escolar o a competiciones no federadas y las competiciones de ámbito inferior al estatal.

4. No tendrán la consideración de gastos subvencionables los gastos de inscripción, estancia, desplazamiento, manutención u otros que sean relativos a personas acompañantes salvo para los supuestos de entrenadora o entrenador que haya acompañado a las solicitantes en el desplazamiento a la prueba correspondiente, en los términos del punto 1 de la presente base, o los gastos que no respondan a la participación en la prueba para la cual se solicita la subvención.

5. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Asimismo, no tendrán la consideración de gastos subvencionables los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

6. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las personas solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

7. No se subvencionarán aquellas actividades o proyectos que incurran en discriminación de cualquier clase, de acuerdo con lo establecido en normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.





2. oinarria. Onuradunak.

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez eta baldintza hauek betetzen dituzten kirolariak izan daitezke foru dekretu honen bidez araututako dirulaguntzen onuradunak:

a) Etenik gabe 2025eko urtarrilaren 1etik Bizkaian errolaturik daudenak.

b) 2025eko azaroaren 25etik 2026ko azaroaren 23ra bitartean nazioarteko federazioen edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartutako kirol-probetan parte hartzea.

c) 2010. urtean edo lehenago jaioak. Salbuespenez onartuak izango dira 2010aren ondoren jaiotakoak, Bizkaiko Foru Aldundiak Etorkizun Handiko Kirolari edo Etorkizun Handiko Kirolaritzat jotzeko hautagai legez aintzatetsi baditu.

d) Bizkaiko lurraldeko kirol-federazioak edo, Bizkaiko lurralde-federaziorik ez badago, euskal federazioak izapidetutako lizentzia izatea, dirulaguntza eskatzen den modalitatekoa. Lizentziak 2025. edo 2026. urterako egon beharko du indarrean, edo 2025/2026ko edo 2026/2027ko denboraldirako.

Diruz lagundutako probetan inongo klubekin loturarik ez duten lizentziekin parte hartzeko aukera ematen duten modalitateen kasuan, dagokion euskal federazioak emandako lizentzia.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den eguna baino lehen bete beharko dira betekizunak.

2. Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan dutenek ezin

Base 2. Beneficiarias.

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral deportistas que, no estando incursas o incursos en las causas del art. 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) Estén empadronadas o empadronados en el Territorio Histórico de Bizkaia, ininterrumpidamente, desde el 1 de enero de 2025.

b) Que entre el 25 de noviembre de 2025 y el 23 de noviembre de 2026, tomen parte en pruebas deportivas incluidas en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o de federaciones españolas.

c) Que hayan nacido en el año 2010 o antes. Excepcionalmente se admitirán las personas nacidas con posterioridad al año 2010, siempre que estén reconocidas como deportista promesa o pre-promesa por la Diputación Foral de Bizkaia.

d) Que cuenten con licencia tramitada por la federación deportiva territorial vizcaína, o por la federación vasca en caso de no existir federación territorial vizcaína, de la modalidad para la que se solicita la subvención. La licencia deberá estar vigente para el año 2025 o 2026, o para la temporada 2025/2026 o 2026/2027.

En el caso de modalidades en las que se permita participar en las pruebas objeto de subvención con licencias no vinculadas a ningún club, licencia emitida por la federación vasca correspondiente.

Los requisitos deben de cumplirse antes del día que finalice el plazo de presentación de las solicitudes.

2. En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa,





izango dute inolako laguntza ez dirulaguntzarik eskatu ez jaso, ez eta honako hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenek ere: Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

II. TITULUA

Araubide juridikoa

3. oinarria. Araudi aplikagarria.

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria. Arau-haustea eta zehapenak.

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV.

laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, así como quienes incumplan las obligaciones establecidas en el Título III del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

TÍTULO II

Régimen jurídico

Base 3. Normativa aplicable.

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Base 4. Infracciones y sanciones.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las





tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV del Reglamento de desarrollo de la misma.

III. TITULUA

Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (Recalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Adingabeen eskabideak legezko ordezkariak aurkeztu beharko ditu. Ondorio guztietarako, haiek izango dira -eta ez adingabeak- jasotako dirulaguntzaren onuradunak. Edonola ere, adingabeak bete behar ditu foru dekretu honetako 2. oinarrian ezarritako baldintzak.

Aldiz, adingabea izango da dirulaguntzaren onuraduna, baldin eta haren ordainketa izapidetu aurretik adin-nagusitasuna lortzen badu.

3. Eskatzaile bakoitzak dirulaguntzarako proba bakoitzeko eskabide bat aurkeztu behar du, bera egin eta gero.

TÍTULO III

Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. Las solicitudes de subvención se podrán presentar en las oficinas del Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia (c/ Alameda de Recalde 30, 1º Bilbao), o en la forma que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

También podrán presentarse solicitudes a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En el catálogo de trámites de la sede electrónica se encuentra la ficha resumen del presente decreto foral.

2. Las solicitudes de las personas menores de edad deberán ser presentadas por su representante legal. A todos los efectos serán éstas, y no las personas menores, las beneficiarias de la subvención. En cualquier caso, los requisitos señalados en la base 2 del presente decreto foral habrán de concurrir en la persona menor de edad.

La persona menor en el tiempo de la solicitud que alcanzase la mayoría de edad antes de la tramitación del pago de la subvención será la beneficiaria de esta.

3. Cada solicitante deberá presentar una solicitud por cada prueba objeto de subvención, una vez que se haya celebrado.





4. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 16an hasi eta 2026ko abenduaren 1ean amaituko da (egun hori barne).

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztuz gero, egoitzan egongo dira eskuragarri eskabidearen eredu ofizialak, bete eta aurkeztu ahal izateko, 39/2015 Legearen 66.6. artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan, dirulaguntzen eskaerak I eta II inprimakiak behar bezala beteta aurkeztu dira. Ereduok hurrengo web-orrian eskuratu daitezke:

<http://www.bizkaia.eus//kulturadirulaguntzak>

2. Kasu bietan, eskabideekin batera hurrengo apartatuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatu beharko du eskabidea:

a) 2.1.d) oinarrian aurreikusitako Kirolariaren federazio-lizentzia eta, entrenatzaile bati dagozkion gastuak aurkeztuz gero, dagokion diziplinan entrenatzaile gisa jarduteko lizentzia.

b) Kirol probaren deskripzio-fitxa: II. inprimakia.

c) Kasuan kasuko probetara joan den entrenatzailearen adierazpena, beraiek sinaturik: II. inprimakia.

d) Hau egiaztatzen duen agiria: proba nazioarteko edo Espainiako federazioen egutegi ofizialetan sartuta dagoela, interesdunak bertan parte hartu duela, proba zein posiziotan amaitu duen, zer egunetan egin den proba eta zenbat parte-hartzaile izan

4. El plazo de presentación de solicitudes será desde el 16 de diciembre de 2025 hasta el 1 de diciembre de 2026 (incluido).

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Para quien presente su solicitud a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, los modelos oficiales de solicitud estarán disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En los demás casos, las solicitudes de subvención se deberán presentar en los formularios I y II, debidamente cumplimentados y accesibles a través de la siguiente página web:

<http://www.bizkaia.eus//kulturadirulaguntzak>

2. En ambos casos, las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación exigida en los siguientes apartados y suscrita por la persona interesada o su representante:

a) Licencia federativa del o de la deportista prevista en la base 2.1.d) y, en caso de presentar gastos correspondientes a una persona entrenadora, licencia para ejercer como tal en la disciplina correspondiente.

b) Ficha descriptiva de la prueba deportiva: formulario II.

c) Declaración firmada de la entrenadora o entrenador que haya acompañado a las solicitantes en el desplazamiento a la prueba correspondiente: formulario II.

d) Documento que acredite que la prueba está incluida en calendarios oficiales de federaciones internacionales y/o españolas, que la persona interesada ha tomado parte en la misma y la posición en la que ha finalizado la prueba, la fecha en la que se ha desarrollado y





diren.

e) Hala badagokio, lehiaketan parte hartzeko alde zureko sailkapen-probetan parte hartu behar izan duela justifikatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

f) Dirulaguntzaren eskaeraren xede den proban parte hartzeko inskripzioan, egonaldian, joan-etorrietan eta mantenuan egindako gastua egiaztatzen duten ordainketen egiaztapenak edo kopiak. Era berean, hala badagokio, entrenatzailearen gastuen eta ordainsarien egiaztapenak aurkeztuko ditu.

Aurkeztutako egiaztapenaren eta fakturen zerrenda aurkeztuko da, eta kirolaria edo entrenatzailea ez den beste pertsona bati dagozkion gastuak egotzen badira, horiei dagokien zatia adierazi beharko da.

Aurkeztutako zerrenda ez badator bat aurkeztutako egiaztapenekin eta fakturekin, eskabidean aurkeztutako egiaztapenak eta fakturak baliozkotzat joko dira, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

g) Legezko edo borondatezko ordezkaria zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

7. oinarria. Dokumentazio egiaztapenak.

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kirol Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek interesdunei, haien ordezkariak eta, hala badagokio, dirulaguntza ordaintzeko izapideak egin baino lehen adin nagusitasunera iristen den adingabeari buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, salbu eta berariaz aurka egiten badiote. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

el número de participantes.

e) En su caso, deberá presentar un documento que justifique que la participación en la competición está condicionada a haber tomado parte en pruebas clasificatorias previas.

f) Justificantes de los pagos o sus copias acreditativos del gasto efectuado en inscripción, estancia, desplazamiento y manutención para tomar parte en la prueba objeto de la solicitud de subvención. De igual manera, aportará, en su caso, justificantes de los gastos y emolumentos relativos a la persona entrenadora.

Se acompañará de un listado de los justificantes y facturas presentadas, y en el supuesto de que se imputen gastos correspondientes a personas distintas del/de la deportista o de la persona entrenadora, se deberá indicar la parte atribuible a estas.

En caso de que el listado presentado no se corresponda con los justificantes y facturas aportados, se considerarán válidos, a efectos de calcular el importe de la subvención, los justificantes y facturas presentados en la solicitud.

g) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

Base 7. Documentación verificable.

El Servicio de Deportes del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las interesadas, sus representantes y, en su caso, del o de la menor de edad que alcance la mayoría de edad antes de la tramitación del pago de la subvención, que resulten necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa, en cuyo caso, deberán





Datu horiek hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako batean errolaturik dagoela adierazten duen ziurtagiri historikoa.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kirol Zerbitzuak izapideak egiteko behar dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

